



15. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 15. eguna. 2020ko martxoaren 30a, astelehena.

Igandea hilak 29ko Kudeaketa / Ekintzak

UDAL BALIABIDEETAN DAUDEN PERTSONEKIN EGINDAKO ESKU HARTZEAK

Orain dela hamar egun, 6. buletinean, honako hau idatzi genuen: gaur egun, baliabide publikoetan etxebizitzarik ez duen pertsona kopuru handi xamar bat dago, beraien beharrak direla eta, gizarte zerbitzuen menpe bizi direnak gehienetan. Pertsona hauei merezi duten arreta ematea ez da gauza erraza, batzuetan beraien beharrengatik eta beste batzuetan gizarte zerbitzuek duten lan karga handiarengatik (maiz, langile eta baliabide kopuru murriztua izateagatik)

Aukera paregabea dugu, beraz, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona hauekin lan egiteko. Haien zailtasunak, nahiak, trebetasunak, euskarri-puntuak, motxilak, gabeziak, haiekin lan egin ahal izateko funtsezkoak diren alderdi horiek guztiak ezagutzeko. Aukera dugu arreta pertsonalizatua emateko, oinarritzko baliabideak izan ditzaten eta, aldi berean, gizarte honetan erabat txertatzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko dieten ibilbideak diseinatzeko.

Aukera hau aprobetxa dezagun ezagutza hori areagotzeko, beren iritzia, kritikak eta asmoak entzuteko, pertsona horiekin esku hartzeko. Ez dezagun oraingo ahalegina ohea eta janaria ematera mugatu. Gainera, baliabide horietan egoteari eta gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeari zentzu handiagoa emateko modu bat izan daiteke. Era berean, konfinamenduen boraren zati bat betetzeko modu bat da, pertsona horientzat (eta guztientzat) oinarritzkoa den gai bat jorratuz, hots, entzutea. Entzunak senti daitezela. Ez deztela sentitu bazterretan utzi dituztela eta ezin dutela beren egoera besteen moduan "normalizatu".

Proposamen hau Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari helarazi genion, esperientzia eta gaitasuna zuen lan taldea barne hartuz. Ez dugu oraindik erantzunik jaso.

OSTATUAK. Udalak egungo baliabideak saturatutzat jotzen dituelako albiste txarra berretsi du, ez ditu SMUS edo *Atanora* iristen diren pertsona gehiago hartzen. *Atano* kanpoaldean hamar bat pertsona daude, ostaturik eskaini gabe eta kalean egotea debekatuta dutenak. Onartezina da.

KOMUNIKAZIOA. 14. buletina sarean zabaldu da eta komunikabideei helarazi zaie.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Uneotan, joan-etorriak egiteko debekuak gogortu direlarik, **ziurgabetasun handia dago elikagaiak banatzen jarraitzeko izan ditzakegun aukeren inguruan.** Dagokien agintariek ez digute aukera hau ziurtatzen. Itxarotea besterik ez dugu. Dekretuak ematerakoan, berriz ere, biztanleriaren sektore ahulenen gaineko ondorioak nola ahazten dituzten irudikatzen du honek. Egon badaude, eta asko.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionean, 126 pertsonen emandako diru-sarrerak 7.387 € izan dira guztira. **Gandarias** eta **Pandoraren** eguneroko ekarpenak jarraitzen du.

Bi mugikor eta kanpin gas bonbona bat behar ditugu.



15. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Biharamuneko Pilulak. Ba al dakigu nortzuk diren etxerik ez duten pertsona horiek? Zein behar dituzuen? Zein eskubide? Zer amets? Zer gaitasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Galdera hauei zuzentzen dizkiegu Biharamuneko Pilulak.

4. PILULA

SEGURTASUNA GUZTIENTZAT

Mugarik gabeko polizia. Ez, ez da GKE berri bat. Ezta migratzaileen eta errefuxiatuen etorrera eragozteko EBk egiten duena ere. Gure hirian (eta gainerakoetan) poliziak muga berririk ez sortzeko eskakizuna da. Pertsona guztiak berdin tratatzea, ez azalaren kolorearen, adinaren, kreditu-txartelaren edo biztanleriaren aurreiritzien arabera. Segurtasuna Donostiako biztanle guztiek behar baitute. Ez parte bakar batek bestearen eskubideen kontura.

Agente, ez nazazu kriminalizatu. Demokrazia hau jaio zenean, diktadorea hil ondoren, esaten zen, poliziak, delitu jakin bat egin zuela susmatzen bazuen soilik eska zezakeela dokumentazioa. Ordutik pasa da denbora! Gaztea bazara, profil jakin bat baduzu eta kalean bazaude, ez gustuagatik, beharragatik baizik, prest egon zaitez kontrolatua izateko, egunero! Dokumentazioa eskatuko dizute. Gaietan daramazunaren erosketa tiketa eskatuko dizute. Intimitaterik gabe katxeatuko zaituzte eta poltsikoak miatuko dizkizute. Egoera hau egunero ikusita, auzokideen parte batek, aurreiritzi xenofoboak dauzkana, poliziak arrazoia ematen diola ikusten du. Hainbeste kontrolatzen badituzte, zerbaitegatik izango da.

Hurbileko polizia? "Hemengo poliziarekiko harremana, ona izan da, errespetuzkoa. Egia da batzuk gaiztoak direla, arrazistak, baina gehienak onak dira, errespetuz hitz egin didate ". Horrelako testigantzak erraz aurkitzen dira gazte askorengan gure hirira iristen direnean. Harreman ona izatea erraztuko lukeen abiapuntua da. Hala ere, denbora bat igaro eta gero, harreman hori zapuztu egiten da. Zapuzte honen arrazoen azterketa autokritikoa egin dezakegu? Egun, gazte horietako askorentzat, polziaren hurbiltasuna ez da segurtasunaren parekoa, arriskuaren sinonimoa da, apalaraziak izatearena.

Ez da ona edo gaiztoa izatearen kontua. Ez da polizia eta kriminal izatearen kontua. Herritar guztiek izan behar duten hiritartasun hezkuntzari buruzkoa da. Baita poliziek ere, eta arrazoi gehiagorekin gainera. Izan ere, segurtasuna emango digutela espero dugu, eta horregatik ematen zaie autoritatea. Ez badu zintotasunez erabiltzen, pertsona guztien eskubideak errespetatuz, gehiegikeriaz hitz egiten ariuko gara. Ez gara banakako poliziez ari. Eskubideekiko errespetuzko jarrera asko ezagutzen ditugu. Zoritxarrez, kontrakoak ere bai. Poliziak, segurtasun-gorputz gisa, harengandik espero duguna betetzea nahi dugu.

Guztion eskubideak errespetatzen dituen polizia, orain.

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.